

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5967

1455/2021 EBAZPENA, azaroaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez zuzendu egiten diren azaroaren 2ko 1387/2021 Ebazpenaren akatsak (1387/2021 Ebazpenaren bidez, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratu ziren eta behin betiko esleipena egin zen, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren ezarpen-zikloan deitutako Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian –lanpostu funtzionalak: Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT–, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan).

Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 1671/2019 Ebazpenaren bidez (2020ko urtarrilaren 13ko EHAA 7. zk.), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorra deitu zen Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (lanpostu funtzionalak: Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT, eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT), Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 11ko 488/2020 Ebazpenaren bidez (2020ko abenduaren 21eko EHAA 254. zk.), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren ezarpen-zikloko destinoen eskaintza argitaratu zen, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (lanpostu funtzionalak: Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT, eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT). Ebazpen hori Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren abenduaren 22ko 587/2020 Ebazpenaren bidez aldatu zen (2020ko abenduaren 31ko EHAA 262. zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren uztailaren 19ko 384/2021 Ebazpenaren bidez, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratu ziren eta behin-behineko esleipena egin zen, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren ezarpen-zikloan deitutako Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (lanpostu funtzionalak: Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT, eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT), Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 2ko 1387/2021 Ebazpenaren bidez, egun horretan bertan argitaratu zen Osakidetzaren web-orrian, eta 2021eko azaroaren 18an EHAAn argitaratzea aurreikusten da, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratu ziren eta behin betiko esleipena egin zen, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren ezarpen-zikloan deitutako Fakultatibo Mediko eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (lanpostu funtzionalak: Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT, eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT), Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

2021eko azaroaren 25a, osteguna

Esleitutako destinoen artean, akats bat detektatu da Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 3.3.1. oinarriaren aplikazioan. Beraz, esleipen horrek ez du betetzen lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrean kasu honetarako ezarritako irizpidea.

Prozesua behar bezala eta fidagarritasunez gara dadin, eta langileen arloan indarrean dagoen legediak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko 1387/2021 Ebazpenaren III. eranskineko akatsak zuzentzea. Ebazpen horren bidez argitaratu ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleipena egin zen, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren ezarpen-zikloan deitutako Fakultatibo Mediko eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (lanpostu funtzionalak: Familia Medikuntzako Fakultatibo Espezialista Medikoa-LMAT, eta Pediatriako Fakultatibo Espezialista Medikoa - LMAT), Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako destinoetan. Hain zuzen, zuzenketa hau egin da.

III. ERANSKINA

488/2020 EBAZPENAREN ZIKLOA

DESTINOEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA

KATEGORIA: FAMILIA MEDIKUNTZAKO FAK. ESP. MEDIKOA LMAT

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAMILIA MEDIKUNTZAKO FAKULTATIBO ESP.
MEDIKOA-LMAT

Ondoriorik gabe uztea esleipen hau:

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***3880**	Lopez Fernandez, Jacob	Barakaldo-Sestaoko ESla	Destinoa: Lehen Mailako Arreta - Lehen Mailako Arreta LMA / Barakaldo-Retuertoko Kontsultategia / Lehen Mailako Arretako Unitateak - Familia eta Komunitate Medikuntza / Arratsaldez - Arratsaldez agenda irekia goizez - Espezifikotasun gehiagorik gabe	2	

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren web-orrian eta EHAAn argitara dadin agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honi argitaratzen den datatik aurrerako ondorioak ematea.

Gainerako ekintzetan, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 2ko 1387/2021 Ebazpenean ezarritakoa mantentzen da.

2021eko azaroaren 25a, osteguna

Laugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzako Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.